

**HUELGA FEMINISTA GENERAL  
GRÈVE FÉMINISTE GÉNÉRALE**

# **GREBA FEMINISTA OROKORRA**

**AZAROA NOVIEMBRE NOVIEMBRE**



**LANTOKIETAKO  
ASANBLADAK GIDATZEKO  
ESKEMA**



**AZAROA  
NOVIEMBRE  
NOVEMBRE**

# **GREBA FEMINISTA OROKORRA**



Zaintza eskubide kolektiboaren alde.  
A favor de un derecho colectivo al cuidado.  
En faveur du droit collectif au soin et à l'accompagnement.

## **LANTOKIETAKO ASANBLADAK GIDATZEKO ESKEMA**

**OHARRA:** --Dokumentu honek Greba Feminista Orokorraren prozesuan eta lanketan lantokietako asanbladak deitzeko lagungarria izan nahi du; eredu moduan erabili. Hala ere, tokian toki eta sektorez sektore moldatu daitekeen planteamendua da (eskaini dakiokkeen denboraren arabera, lehentasunen arabera...)

*Ondorengo puntuetan aurkituko duzuen Greba Feminista Orokorrarek kokapena egiteko edukia da. Kokapena egiteaz gain, amaieran ariketa kolektibo bat egitea planteatzen dugu: zer egin dezakegu gure lantokian aldarrikapen hauek lurreratzeko?*

### **Nola deituko ditugu asanblada hauek?**

- Enpresa eta lan zentroetan greba lantzeko langileen asanbladak izango dira.
- Asanbladen deialdia gehiengoak daukanak egingo du.
- Asanbladak sindikatuen artean elkarlanean dinamizatuko dira; horretarako, gida metodologiko hau.
- Mugimendu Feministako kideak grebaren kokapena egitera gonbidatu ditzakegu asanblada hauetara.

Asanblada egiteaz gain mozioak landuko ditugu lantokietan, grebari atxikimendua adierazteko.

## 1. Egungo testuingurua zaintza lanen inguruan.

### Zer da zaintza lana?

«Zaintza da 'gure mundua' mantendu, jarraitu edo konpontzeko egiten dugun guztia, bertan ahalik eta hobekien bizi ahal izateko» (Fisher eta Tronto, 1990:40).

Gaur egun, zaintza lanak (bizitzak sostengatzeko beharrezkoak diren lan horiek guztiak) ez daude modu justuan banatuta, eta emakumeon gain erortzen dira gehienbat; ez daukate aitortza sozialik, ez politikorik, ezta ekonomikorik ere. Horrekin apurtu nahi dugu, gu guztiok bizitza duinak izateko eta zaintzak guztion ardura izan daitezen

Zaintza bizimodu duina eraikitzeko oinarria da: ez da unean uneko zerbait, zaintza bizitzako une eta eremu guztietan beharrezkoa baita. Gure gorputzen eta gure komunitateen iraunkortasunerako ezinbestekoa da; hau da, bizitza, ongizatea eta osasuna iraunarazteko eta kudeatzeko beharrezkoa da.

Gaur egungo sistema ekonomikoak zaurgarritasun egoeran jartzen gaitu, ez baitu kontuan hartzen zer garen:

Ekomendekoak gara, naturaren parte gara, naturaren zikloen, erritmoen eta aberastasunen mende gaude. Izaki finituak gara eta, aldi berean, pertsonen garapen aukerak mugatuak dira.

Interdependenteak gara, bizitza sostengatzeko ezinbestekoa delako elkarri laguntzea; pertsonok elkarren mende eta beharrean bizi gara, gure bizitzan zehar zaurgarritasun uneak ditugu (haurtzarora, zahartzarora, gaixotasuna, mendekotasuna).

### Zein da gaur egungo egoera?

Gaur egun, krisi ekosozial global batean murgilduta gaude: kapitalismoak, patriarkatuak eta kolonialismoak bere fase neoliberaleran eragindakoa, sustrai sakonak dituena. Bizitza akabatzen duen sistema baten aurrean gaude: bai pertsonon bizitzak, eta bai natura bera.

Euskal Herrian, gaur egun, zaintzarako zerbitzuak gero eta pribatizatuago daude. Familia heteropatriarkala erdigunean jartzen duten politikak erabiltzen ari dira zerbitzu horiek ez garatzeko; berriro ere, zaintza lanak emakumeon gain uzten ari dira. Nahiz eta administrazio publikoa izan zaintza zerbitzuak kudeatzearen arduraduna, kasu gehienetan kudeaketa ez-zuzena ezarri dute, enpresa pribatuen esku utzi dute eta horrek prekarizazioa ekarri du.

EAEn EAJk (PSEren laguntzaz) eta Nafarroan alderdi neoliberal ultrakontserbadoreek negozioa egin dute zaintza lanekin. Azken 20 urteetan sistematikoki pribatizatu dituzte ahal izan dituzten zaintza zerbitzu publiko guztiak, enpresa lagunen esku uzteko eta horietatik milioi askotako etekinak ateratzeko, zaintzaren kalitatearen eta langileen lan-baldintzen kaltetan.

Zaintza lanen aitortza eskasak eragin du inork egin nahi ez dituen lanak izatea. Hortaz, generoa, arraza, klase soziala eta jatorriaren ardatzek zeharkatzen dute.

Etxeko langileak dira zaintzaile guztien artean esplotazio handiena sufritzen dutenak. Emakumeak dira %80 eta baztertutako kolektiboek egiten dituzte gehienetan lan horiek. %29,9 egoera administratibo irregularrean daude, eta %50ek ez dute babes ekonomiko nahikorik (Emagin, 2018).

## **2. “Denon Bizitzak Erdigunera” prozesuaren bilakaera.**

Denon Bizitzak Erdigunearan pandemia garaian abiatu zen, aspalditik zetorren zaintzen krisia ikusarazteko aukera baliatuta. Prozesu hori Euskal Herriko Mugimendu Feministak gidatu zuen, eta beste mugimendu sozioindikal batzuekin batera diagnostiko, aldarrikapen eta jarduera-plan komun bat eraikitzeke helburuarekin abiatu zen.

2022ko otsailean Gasteizen jardunaldi nazional batzuk egin ziren eta 200 emakume baino gehiago elkartu ginen. Urte horretako udazkenean asanblada irekiak egin ziren herrialde ezberdinetan eta herri akordio bat adosteko beharra nabarmendu zen; aldarrikapen taula bat, hain zuzen ere. Akordio hura sozializatzeko eta aurrera eramateko tresna egokiena greba feminista orokorra izango zela adostu zen.

## **3. Zergatik greba? Orokorra? Feminista?**

### **Zergatik greba?**

Greba lanuztea da, lan ez egitea, baina greba hau hori baino konplexuagoa da.

Greba egunak aldarrikatzeko balio du, baina guk prozesu osoari begiratuko diogu. Greba honetan antolakuntza, aktibazioa, saretzea, politizazioa, interpelazioa eta harremanak jarri nahi ditugu oinarrian. Greba bera prozesu honen inflexio puntu bat izango da; ez da lehenengoa izango, ezta azkena ere. Helburua ez da greba eguna bera, horren aurretik eta ondoren egingo dugun lana baizik.

Denok ez dugu greba egiteko eskubidea. Lan batzuk ezin dira egiteari utzi. Hortaz, zaint-

za lanen greba ere deitzen dugun arren, badakigu ezinezkoa dela erabateko lanuztea egi-tea. “Kontraesan” horren potentzialitatea erabili nahi dugu, zaintzen ezinbestekotasuna agerian jarri eta nork eta zein baldintzetan zaintzen duen azaleratzeko.

### **Zergatik Feminista?**

Greba feminista, erradikala da. Sistema kapitalista, heteropatriarkala, kolonialista eta arrazista salatuko dugu. Privatizazioaren arduradunak interpelatu eta seinlatu behar ditugu. Eskuineko erakunde neoliberalak gure mezuez apropiatzen eta diskurtsoak edukiz husten ari direla salatuko dugu.

Zaintza sektoreko langileen eta Mugimendu Feministaren artean aliantzak egiteko erabiliko dugu prozesu hau, are gehiago orain greban daudenekin: mugimendu feministak haien borrokak babesten ditu eta sindikatuok zaintza langileek egindako bide feminista aitortu. Zaintza langileen borrokari beste dimentsio bat emateko baliatu behar dugu. Zaintzaileak politizatuz jendartea politizatuko dugu.

### **Zergatik Orokorra?**

Zaintza eskubidearen aldeko borroka jendarte osoari begirakoa da; denen bizitzetara buruz ari gara. Emakumeak zein gizonak gaude greba egitera deituta. Zaintzaren gaiarekin denok gara eragile eta jasotzaile. Guztiok izango ditugu, gure bizitzaren zatiren batean, zaintza beharrak. Zaintza lanen aitortzak eta berrantolaketak eskatzen du, ezinbestez, gizonek ere, erantzukidetasunez, beste paper bat hartzea. Denok hartu behar dugu ardura aldaketak egiteko.

Denon ardura delako gaude deituta denok grebara. Gainera, enplegua antolatzeko moduak ere eragin zuzena du zaintzan, eta ez soilik zaintzarekin loturiko enpleguetan. Lanaldi luzeak, kontziliaziorako zailtasunak, zaintzarako baimenek dakarten pobretzea... Horregatik da greba orokorra.

Hori dela eta, zaintzaren ulerkera zabala garatzen ari gara, ahalik eta jende gehien prozesuarekin interpelatua sentitzeko eta grebaren subjektu sentitzeko. Gainera, borrokarako subjektua prozesuan bertan sortzen ari da, eta modu desberdinetan parte hartzeko aukerak egongo dira. Lidergoa mugimendu feministak izango du eta horretarako bermeak jarriko dira hasieratik, tresna ezberdinekin: espazio ez mixtoak, jarrera dekalogoak eta bestelako iruditegi zein moldeak. Dena den, aniztasuna kudeatzea gatazkatsua izango da. Zapaldu eta zapaltzaile posizioak errebisatu beharko ditugu etengabe, bakoitzaren parte-hartzea eta lekua zein den definitzeko.

Mugimendu ezberdinekin aliantzak sortzera goaz.

## Gogoratu!

**Jendarte osoa deituta egongo da.** 1. Mugimendu Feministak lidergotza izango duen Greba Feminista izango da. Beste sindikatu eta eragileekin elkarlanean eta bakoitzaren misioa zainduz landuko dena.

Aurreko urteetan bizi izan ditugun Martxoaren 8ko Greba Feministaren ezaugarritzetik aldentzen da, baita azken urteetan bizi izan ditugun Greba Orokorretatik ere.

**\*Gizon eta emakumeen papera greban:** Greba orokorra da, baina lidergoa Mugimendu Feministarena izango da. Erabakiguneak asanblada feministetan egongo dira. Denon lana izango da prekarioeneko edo egoera zaurgarrienean dauden emakumeek greba egin dezaten ahalbidetzea. Gizonek alde batera utzi ezin diren zaintza lanak lehenetsunez beren gain hartu eta emakumeok\* greba egin dezagun ahalbidetu.

Lantokietan gizonen rola: azpimarratu greba hau guztion ardura dela. Gizonek jarrera aktiboa hartu bai, baina ezingo dute protagonismoa lapurtu. Lantokietan emakumeon parte hartzea sustatzen saiatuko gara, ahalduzterako espazioak eta aliantzak eginez (emakumeon asanblada edo sareak ere antolatu daitezke).

## 4. Aldarrikapena

Zaintza sistema publiko-komunitario baterantz: Zaintza eredu aldatzeko premia hiru elementutan antzeman daiteke: zaintza lanen aitortzarik eta banatzerik eza, zaintzaileen lan baldintza kaxkarrak eta hortik eratorritako arretaren kalitate txarra.

Azaroaren 30eko Greba Feminista Orokorraren bidez, Zaintzarako Eskubide Kolektiboaren aldarria jarri nahi dugu erdigunean. Baina baita epe laburrera markatzen ditugun lehentasunak ere:

1. Zaintza duinen uniberteltasuna eskubide gisa aitiortzea eta bermatzea.
2. Zaintza sistema publikoa indartzea eta garatzea.
3. Zaintza zerbitzuen pribatizazioarekin amaitzea.
4. Etxez etxeko laguntza zerbitzua indartzea eta garatzea.
5. Atzeritartasun legea bertan behera uztea, eta, bitartean, zaintza langile guztiak erregularizatzea.

6. Erroldatzeko eskubidea guztiontzat eskuragarri izatea.
7. Etxeko langile egoiliarren erregimena desagerraraztea.
8. Etxeko langileak lan-erregimen orokorrean sartzea: Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. hitzarmena bere osotasunean berrestea.
9. Etxeko langileen gutxieneko soldatetik gorako lansaria ezartzea.
10. Zaintza sektoreko langileen lan baldintzak hobetzea.
11. Zaintzailei laguntzeko sareak sortzea.
12. Zaintzeko denborak bermatzea: lanaldia murriztu soldata txikitu gabe.
13. Gizonek zaintza lanetan ardura hartzea.
14. Zaintzeko baimenak zabaltzea eta handitzea: loturagramak.
15. Zaintza lanak transbertsalki lantzea: hezkuntzan, osasungintzan eta lan eremuan, besteak beste.
16. Pentsio duinak ezartzea: 1080 eurokoak gutxienez.
17. Agroekologia babestea eta sustatzea.
18. Etxebizitza eskubidea bermatzea: merkatuan esku hartzea.

Epe luzera markatzen ditugun lehentasunak:

19. Zaintza sistema publiko-komunitarioa garatzea: aldaketa kultural handi bat eskatzen du eta trasbertsalki momentuoro landu behar da (zaintzaren kontzeptua landu eta zaintzaren kultura hedatu, familia heteronuklearra suntsitu, gizonei ardura eskatu, zaintza hezkuntzatik sustatu...)
20. Lanaren banaketa sexual eta arrazistarekin amaitu.
21. Herri antolaketa feminista bat garatzea: espazioen diseinua, denboraren erabilera eta hirigintza (etxebizitza komunitarioak) eraldatu, elikadura burujabetza bultzatu eta, horren bidez, hirien eta landa eremuaren arteko harremanak eraldatu.
22. Arrazakeriaren eta biolentzia instituzionalaren aurka borrokatzea.
23. Herri boterea eta gobernantza eredu berriak eraikitzea.

## 5. Greba eguna nolakoa izango da?

- \* “Denon Bizitzak Erdigunera” Herrietako Greba Batzorde edo asanbladetarako irizpide dokumentu bat egongo da, modu zehatzagoan azalduko duena greba egunerako diseinua egiteko kontuan hartu beharrekoa.

### **Mobilizazioak:**

Bi mobilizazio une nagusi egongo dira. Goizean, herrietan deszentralizatuta, 12:00ak aldera egingo dira mobilizazioak. Goizeko mobilizazioetan zaintza langileak eta, batez ere, greba egin ezin dutenak kontuan hartuko ditugu. Arratsaldean, hiriburuetan, zentralizatuagoak izango dira mobilizazioak: hiriburuen inguruko eskualdeak

hiriburuetara joateko apustua egiten da, nahiz eta eskualde buruetan ere mobilizazioak egongo diren. Hori herrialdeetako asanblada feministetan eta greba batzordeetan diseinatuko da.

### **Piketeak:**

- Goizeko piketeak: Industriaguneetako piketeak antolatzerako orduan, Mugimendu Feministarekin elkarlanean egingo dugu. Aukerak dauden tokietan, maskulinizatutako eremu hauetako enpresa handietan Mugimendu Feministak presentzia berezia izan dezan. Gainera, enpresen “markajeak” egiterako orduan saiatuko gara identifikazio ariketa egiten eta zaintzaren problematikarekin lotuta egon daitezkeen toki sinbolikoak markatzen: kontziliazio neurriekin gatazkaren bat egon den enpresaren bat edo feminizatutako sektoreren bat badago...
- Herrietako piketeak: Goizean zehar herriguneetara bideratuko ditugu piketeak, komertzioak itxi eta kaleetan presentzia egoteko.
- Elkartasun piketeak: Bereziki, zerbitzu minimoetan dauden emakumeei eta greba egin ezin dutenei ikusgarritasuna emateko eta elkartasuna adierazteko, piketeak egingo ditugu: erresidentzietara kalejira edo mobilizazioak bideratuz, adibidez.

Greba eguna antolatzeko beste gako batzuk:

- **Greba egin ezin dutenak ikusarazteko** ekimenak ere pentsatuko ditugu eta kolektibo horiekin lanketa berezia egingo dugu; etxeko langileekin, esaterako: egitarauan tarte batez (egun osoa ez bada ere, hitzordu bat jarritz), pankarta edo muralen bidez greba egunean zehar, mobilizazioetan hutsune bat irudikatuz...
- Espazio publikoan **gune iraunkorrak sortzeko apustua** egingo dugu: egun osoan zehar zaintzarako, informazio gune bezala, propaganda banatzeko, otorduak egiteko...
- Egun osoko egitarauak egitea bultzatuko da: **eguerdian herri bazkariak** eginez (bakoitzak ekarritakoarekin edo bazkaria bertan eginez).
- **Kontsumo greba** ere izango da.
- **Zaintza espazioak** sortzen baldin badira, lehentasunez gizonak egotea aurreikusten da.
- Instituzioak interpelatzeko une bat ere egongo da.



## 6. Nola antolatuko da greba?

\* “Denon Bizitzak Erdigunera” koordinadoratik “**Antolaketa ereduaren irizpideen dekalogo**” bat egongo da.

**Asanblada feministak** erabakigune nagusiak izango dira. Herrietan dagoeneko aktibatzen hasiak dira. Espazio horiek izango dira greba komiteak bideratuko dituztenak eta bertan eragingo dutenak. Espazio ez-mixtoak izango dira, baina sindikatuetakoa emakumeak\* parte-hartzera deitu beharko genituzke.

**Greba batzordeak:** irailetik aurrera sortuko dira eta Mugimendu Feministak deituko ditu. Batzorde hauen ardura ere izango da grebaren antolaketa.

Ahalik eta jende gehienak, lantokiez gain, herrietako gune hauetan parte-hartzeko aktibatzea lortu beharko genuke.

## Metodologia proposamena 30'

### 1.- Grebaren kokapena eta arrazoiak konpartituko ditugu lankideekin. Gure diskurtsoa indartzeko zaintza lanen inguruko ariketa bat egitea planteatuko diegu. (10')

- Egoera batzuk esango ditugu eta norberak pentsatu behar du nork egiten dituen zaintza lan hauek bere inguruan.

Nor egiten ditu lan hauek?

- Umeak jantzi eta eskolara eramán
- Bazkaria
- Erosketak.
- Etxean zer falta den pentsatu.
- Gurasoak medikura lagundu.
- Gurasoei erosketak egin.
- Lanaldi murrizketa zaintza lanetarako...
- (Egoera gehiago pentsatu...)

### 2.- Aldarrikapenak konpartitu eta gure egoerara lurreratu. (10')

- Aldarrikapen taula banatu eta guztion artean pentsatu horietatik zein egoera ematen den gure lantokian eta zer ondorio dituen.

### 3.- Erabakitako aldarrikapenaren alde nola borrokatu. (10')

- Behin aldarrikapena erabaki dugunean, pentsatu aurrera begira gure lantokian egoera horren kontra borrokatzeko zer egin dezakegun.

